

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

AZPEITIA

“ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA“

Lehendakaria : **Jabier Lazkano**

Idazkaria : **Iñigo Olarte**

Partaideak : **Rafael Rezabal - Jabier Maiz - Andrex Maiz - J. Inazio Arrieta - Ioseba Irureta - Andoni Irureta - Xabier Azkoitia**

Hartu emanetarako : **J. Inazio Arrieta** Telf : **608 08 70 24** Email : **arrieta-etxaniz@euskalnet.net**

Aholkularitza arkeologikoa eta eduki zientifikoak : **Jesus Tapia** Arkeologoa

Gizakiaren Eboluzioa Urola Bailaran

AURKIBIDEA

Aurkezpena

Helburuak

Hausnarketa

Gizarte-ondorioak

Ekintzak

1. Fasea (2014)

- 1.1. Hausnarketa nagusiak**
- 1.2. Liburuxka**
- 1.3. Muarlak edo Panelak**
- 1.4. Hitzaldiak**
- 1.5. Ingurugiro etxea- Azpeitia**

2. Fasea (2015)

- 2.1. Langileen formakuntza**
- 2.2. Bitrinak**
- 2.3. Tailerrak**
- 2.4. Irteera antolatuak eta Bistita gidatuak**
- 2.5. Komunikazioa**
- 2.6. Erakundeekin harremanak**

3. Fasea (2016-2025) (etorkizunean landu beharko dena)

- 3.1. Azpeitia**
- 3.2. Zestoa**
- 3.3. Azkoitia**

Aurkezpena

Antxieta Arkeologi Taldeak 50 urte igaro ditu Urola eta Gipuzkoa osoan zehar miaketa arkeologikoak egiten. Esperientzia zabal horren ondorioz, aurkikuntza ugariak egin ditu Arkeologia eta Historiaurrea arloetan, eta zenbait kasutan garrantzia internazionala duten aztarnategiak aurkitu dira.

Hala ere, Historiaurrea ezagutzeko ahal den aztarnategi gehiena ikertu behar da, lehengo gizakien bizimodua ezin bait da aztertu kasu isolatuetan oinarrituz. Beraz, aztarnategi guztiak dira garrantzizkoak, eta denon ardura da gure Ondarea osatzen duten elementu guztiak babestea. Horretarako funtsezkoa da orain arte dakiguna zabaltzea, eta gizarteak jakin behar du bere eskuetan zer dagoen: ondarea gozatzeko eskubidea, baina aldi berean hura babesteko betebeharra.

Helburuak

Proiektuaren helburua Urola bailarako ondare arkeologikoa ezagutzera ematea da, bertako baliabide eta azpiegitura kulturaletan txertatuz, eta epe luzera sare tematikoa sortuz bailara osoan.

Ondare arkeologikoa zabaltzeko proposamen honek ez du jarraitu nahi zenbait lekutan ikusi izan dugun eredu berdina, interpretazio gune handirena hain zuzen, askotan ez bait dituzte betetzen hasieran ustetako perspektibak. Gune tematiko gehienak erakargarritasuna galtzen dute hasierako bultzada pasatzean, eta laster hasten dira zorrak eta galerak sortzen. Gainera, ondarea orokorrean bultzatzeko partez aztarnategi bakarrak lantzeko balio izaten dute, eta hura plazaratu ordez (*jarrera aktiboa*), bisitarien mende gelditzen dira (*jarrera pasiboa*).

Gure proposamena, ondarea zabaltzeko nahian, bertako azpiegitura eta baliabideen osagarri izan diatekeen estrategia kulturala martxan jartzea da, Historiaurrearekin zerikusia duten aktibitate desberdinen bitartez. Eskualde-mailan hainbat ekintza antolatzean kultur-baliabideen arteko konexioa landu nahi dugu, gune isolatuetatik Natura eta Arkeologiako sare integralera pasatzeko.

Hausnarketa

Urola bailarako herritar eta erakundeek azken urteetan krisialdi latza jasan izan dutela kontuan harturik, argi dago proiektu erraldoi berri bat ez dela egokia bertako ondarea ezagutzera emateko: alde batetik, gai oso zehatzetan espezializatzen diren proiektu handiek porrot egiteko arriskua dute, etorkizuna moldakortasunaren eta dibertsifikazioaren eskutik datorrela frogatzen ari den momentuan. Bestetik, proiektu garestien onurak zalantzarazkoak dira gaur egun, eta eskualde mailan duten eragina oso aldagarria izan daiteke. Eta azkenik, eskualdean badauden beste gune tematikoekin lehia sortu dezakelako.

Bailarako herrietan era autonomoan funtzionatzen ari diren gune eta talde desberdinei lotura tematiko bat eskaini behar zaie, erakunde bakoitzaren banakotasuna eta arloa errespetatuz. Modu berean, gune eta erakunde horiek bete ezin dituzten arloak jorratu behar dira, haientzat osagarri izan daitezkeen aktibitateak proposatuz. Azkenik, egoitza finkoa duten guneen artean lotura lortzeko, bailara-mailan ekitaldi eta jarduera mugikorrek bultzatu behar dira.

Idea hauek hiru kontzeptutan laburtzen dira:

- Bideragarritasuna*
- Osagarritasuna*
- Mugikortasuna*

Onura ekonomikoa

Proiektu kulturalak epe motzera errentagarritasun ekonomikoa izatea zaila izaten da, eta kasu gehienetan turismoa

erakartzera orientatuak izaten dira. Lehen aipatutako kulturgune erraldoien ereduaren mugak ikusiz, gure proposamenak epe ertain eta luzera eman ditzakeen etekin ekonomikoak bailara-mailakoak dira eta bi atal nagusitan bana daitezke:

-**Barne-fluxua:** epe ertaineko emaitza bezela, bertoko eta inguruko turismo eta aisialdi-mugimenduak kultura-arloran *erakarri eta sustatzea*. Horren eraginak ondorio zuzenak ditu sarean partehartzen duten erakunde eta udalerrri guztietan (zerbitzuak, hostalaritza, dendak). Gainera, kostaldeko turismoa eta diru-sarrerak erakarri eta *birbanatu* daitezke Urola bailaran zehar. Aldi berean, *ekimen pribatutik zerbitzu eta eskaintzak* sor daitezke kultura-arloaren inguruan, bertako nahiz kanpoko merkatuari begira.

-**Kanpo-fluxua:** epe luzera, emaitzak sakonagoak izan daitezke. Kultura-aisialdi zirkuitu zabal eta integratu bat eskeintzea lortu behar da, *kanpo-turismoa* erakarri dezakeena. Gune monotematikoak ez bezala, *erakargune* zabal eta dibertsifikatu batek turismo-egonaldi luzeagoak lortzen ditu, eta merkatu anitz eta aldakor bati aurre egiteko ahalmena handitzen du, dibertsifikazioaren eta moldagarritasunaren eskutik. Aldi berean, barne nahiz kanpo-kontsumoak behar dituzten *azpiegituren berrikuntzek* diru-zirkulazioa areagotzen dute, lurraldeko nahiz estatuko errekurtsuak erakarritik. Eta azkenik, bailara-mailan ondare arkeologiko/kulturalaren ezagutza bultzatzeak, eta bere alde azpiegiturak eta baliabideak egokitzeak, bertako nahiz kanpoko *ikertzaile eta ekoizleen proiektuak* erakar ditzakete.

Gizarte-ondorioak

Ondare arkeologikoaren babesak eta zabalkuntzak ez dute errentagarritasun ekonomikoaren menpean egon behar, eta ezin dugu ahaztu Ondarea babestea eta zabaltzea denon erantzukizuna dela. Dirurik ez ba du ematen, zertarako balio zaigu ondareak orduan? Gure ikuspuntutik, erantzuna bi konzeptutan labur daiteke:

-Bata, ondareak gizartearen eragiten duen *zentzu identitarioa*. Adibide gisa Historiaurreak euskalgintzan izan zuen garrantzia har daiteke, Barandiaranen lanak bereziki, gizarte-kohesioa eta bertakotasuna sustatuz.

-Bestea, ondarearen ezagutzak dakartzan *irakaspen historikoak*. Ez da bakarrik, esaten ohi den bezela, akatsak behin eta berriro ez errepikatzeke leloa, baizik eta esperientziaren bitartez ikasi ahal dezakeguna. Arazo eta giza-fenomeno guztiek aurrekariak eta ondorioak dituzte eta perspektiba luzean aztertu behar dira.

Bi konzeptu hauei helduta, ondare arkeologikoari begirada bat botatzeak gaurko krisialdia ulertzeko baliagarria da eta bere ondorioak goxatu ditzake. Arazoak sortu baino lehenago krisialdiek aurrekariak izaten dituzte, baita epe luzerako ondorioak ere. Horregatik, berehalako etekina lortu nahian milurteko askotan iraun duen aztarnategia suntsitzeak, arazo gutzia galtzen du dirua desagertzen den unean. Bestalde, perspektiba luze batetik ikusita, horain sufritzen dugun krisialdiak bere larritasuna galtzen du beste aldi historikoetan jasandutakoa ikustean. Honek ez du esan nahi arazo bakoitzari bere garrantzia eman behar ez zaionik, alderantziz, gure gizartearen elkarlanaren bitartez arazo larriagoak gainditzeko ahalmena baduela baieztatzen du.

Ekintzak

Lehenengo (2014) fase hau, epe motz eta ertainean Urolan ezagutzen diren aztarnategiak eta kultur balioak gizarteratuko dituen proiektu zabalago baten hasiera bezela planteatzen da. Ekintzen planteamendua lehen aipatutako kontzeptuetan oinarritzen da: mugikortasuna, egokitze ahalmena, gertutasuna, eta bertako erakunde eta baliabideen osagarri izatea, sarean lana sustatzeko asmoz.

Ekintza hauen bitartez gutxieneko helburu batzuetara heldu nahi dugu aurrean, etorkizunean (epe motzean edo ertainan) egin daitezken beste faseen oinarri izango direnak.

Hasiera honetan landu nahi ditugun arloak dira zabalkuntza, sentsibilitatea eta ondarearekiko errespetua, jendearen interesa pizteko eta bere inplikazioa lortzeko.

Gizakiaren Eboluzioa UROLA Bailaran

1. Fasea : Urtea = 2014

1.1 : Hausnarketa nagusiak :

-Proiektuaren analisi orokorra.

-Ardatz nagusiak

-Epe motzerako plana

-Epe ertainerako plana

Helburuak:

-Ondarea gizarteratu

-Ondare arkeologikoa erakargarria egin

-Arlo didaktikoa landu

-Epe ertain (5 urte) edo luzean (10 urte) garatu daitekeen proiektuari hasiera ematea

Edukiak:

-Gizakia: Historiaren antzezlea.

-Zabalkuntza euskaraz

-“Afrikatik...: Homo ergaster-Homo erectus- Homo georgicus- Homo antecessor

-...Urolara”: Homo heidelbergensis – Homo neanderthalensis – Homo sapiens

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

AZPEITIA

1.2 : Liburuxka :

Bailarako Historiaurrea laburtzen duen liburuxka edo gida txiki bat diseinatu eta argitaratuko da. Giza bilakaera natur historiaren barne esplikatu da.

1. : Urola bailarako sorrera Geologikoa.
2. : Gizakiak azaldu baino lehen , Landaretza eta Fauna.
3. : Bailarako lehenengo gizakiak :
Garaia : Behe Paleolitoa.
Gizakia : *Homo heidelbergensis*.
Aztarnak : Irikaitz (Zestoa) – Arnaileta (Errezil)
4. : Gizakiaren eboluzioa izozte garai gogorretan :
Garaia : Erdi Paleolitoa.
Gizakia : *Homo neandertalensis*.
Aztarnak : Amalda (Zestoa) – Urkulu (Lastur)
5. : Artearen jaiotza : Espezie berri eta lehiakor batek bestearen desagertzea dakar :
Garaia : Goi Paleolitoa.
Gizakia : *Homo sapiens*.
Aztarnak : Ekain (Zestoa) – Astigarraga (Zestoa) – Ezkuzta (Azpeitia)
6. : Azken ehiztari eta biltzaileak :
Garaia : Post-Paleolitoa.
Gizakia : *Homo sapiens*.
Aztarnak : Ikulluteko Gaiñe (Azpeitia) – Linatzeta (Lastur)
7. : Oraingo arora transizioa :
Nekazaritza eta domestikazioa , Megalitoen kultura , Kobazulo hilobiratzeak eta Burdin aroko herrixkak.
Garaia : Neolitoa – Brontze aroa – Burdin aroa.
Gizakia : Homo Sapiens.
Aztarnak : Linatzeta (Lastur) – Asurtzu (Azpeitia) – Karea (Aia) - Munoaundi (Azkoitia)
8. : Gure herriko Historiaurreko ondarearen hauskortasuna eta hura babesteko beharrak.

1.3 : Muralak edo Panelak :

Bailarako Historiaurrearen laburpena: Muralak diseinatu eta inprimatu.

5 Herriko udalengan ipiniko dira: Azpeitia – Azkoitia – Zestoa – Errezil – Beizama.

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

AZPEITIA

1.4 : Hitzaldiak :

Gaiak: Proiektuaren aurkezpena. Bertako aztarnategiak, historiaurreko aldi desberdinen lekuko

1. Hitzaldia :

1.1 : Martin Arriolabengoa : Geologoa : Urola bailarako sorrera Geologikoa.

1.2 : Alvaro Arrizabalaga :

Bailarako lehenengo gizakiak :

Garaia : Behe Paleolitoa.

Gizakia : *Homo heidelbergensis*.

Aztarnak : Irkaitz (Zestoa) – Arnaileta (Errezil)

1.3 : M^a Jose Iriarte :

Gizakiaren eboluzioa izozte garai gogorretan :

Garaia : Erdi Paleolitoa.

Gizakia : *Homo neanderthalensis*.

Aztarnak : Amalda (Zestoa) – Urkulu (Lastur)

Hitzaldi honen bukaeran hurrengo hitzaldiarekin lotu: Neandertal – Sapiens trantsizioa.

1. Hitzaldia :

1.1 : Jesus Tapia :

Artearen jaiotza : Espezie berri eta lehiakor batek bestearen desagertzea dakar:

Garaia : Goi Paleolitoa.

Gizakia : *Homo sapiens*.

Aztarnak : Ekain (Zestoa) – Astigarraga (Zestoa) – Ezkuzta (Azpeitia)

1.2 : Jesus Tapia :

Azken ehiztari eta biltzaileak :

Garaia : Post-Paleolitoa.

Gizakia : *Homo sapiens*.

Aztarnak : Ikulluteko Gaiñe (Azpeitia) – Linatzeta (Lastur)

1.3 : Jesus Tapia :

Oraingo arora trantsizioa :

Nekazaritza eta domestikazioa , Megalitoen kultura , Kobazulo hilobiratzeak eta Burdin aroko herrixkak.

Garaia : Neolitikoa – Brontze aroa – Burdin aroa.

Gizakia : *Homo sapiens*.

Aztarnak : Linatzeta (Lastur) – Asurtzu (Azpeitia) – Karea (Aia) - Munoaundi (Azkoitia)

1.4 : Jesus Tapia :

Gure herriko Historiaurreko ondarearen babesean egin behar diren ahaleginak.

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

AZPEITIA

1.5 : Ingurugiro Etxea (Azpeitia) eta San Martin kulturunea (Azkoitia):

5 herrietan batera azpiegiturak antolatzeke astirik ez dagoenez (Azpeitia – Azkoitia – Zestoa – Errezil – Beizama), Azpeitiko Ingurugiro Etxean eta Azkoitiko San Martin kulturunean hasiko da esperimentalki.

Bitrinak :

Azpeitia

1 : *Homo heidelbergensis* : Behe Paleolitoko erreplikak.

2 : *Homo neanderthalensis* : Erdi Paleolitoko erreplikak.

3 : *Homo sapiens* : Goi Paleolitoko erreplikak.

Azkoitia

4 : *Homo sapiens* : Post Paleolitoa – Neolitoa – Brontze aroa – Burdin aroa : Erreplikak.

2014 urterako helburuak bete ahal izatera egokitu, epe ertain eta luzera begiratuta, batez ere Gizaki ezberdinetan oinarrituz.

Panelak:

Kontzeptu sinpleak, ulertzeko errazak

Gizakia da mezuaren zentroa identifikazioa lortzeko

Mezu zuzena ikusgarritasuna landuz

2014 urtean bai bitrinak eta bai panelak oso sinpleak izan behar dute eta hurrengo urteetan osatzen joango dira bisitarien iritsiak kontuan hartuta.

Panelak Gizakiari enfokatuak izango dira, eta bitrinatako materialak aldakorak izango dira.

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

AZPEITIA

Gizakiaren Eboluzioa UROLA Bailaran

2. Fasea : Urtea = 2015

Ingurugiro Etxea Azpeitia :

Hasiera batean azpiegitura hau esperimentalki lantzea interesgarria izan daiteke beste herrietako eredu bezala balio izateko.

2.1 : Langileen Formakuntza :

Bertako langileen Historiaurreari buruzko formakuntza lantzea.

2.2 : Bitrinak osatzen joan urtean zehar :

Bitrinak osatzen edo aldatzen joatea, diskurtsoa eguneratzea, egoera berrietara moldatzea.

2.3 : Tailerrak :

Tailer praktikoak oso interesgarriak eta erakargarriak izan daitezke :

1 : Sua egiteko teknika ezberdinak.

2 : Harria lantzeko teknikak.

3 : Hezurak lantzeko teknikak.

4 : Azkona, Arkua eta geziak, eta Historiaurrean ehizatzeke erabili ziren hainbat teknika praktikan jartzea.

5 : Historiaurreko Gizakiaren beste zenbait adierazgarri :

Labar Arteak : Margo eta grabatuak.

Arte higikorra edo eskuetan erabiltzeko egiten zituzten hainbat gauza.

Animalien larruak ontzea eta jantziak egitea.

Egutegiak antolatu : Adibidez :

-Egutegi Fixoa : Iraila-Ekaina = hilean 1 - Ekaina-Iraila = Astean 1 - Abuztua = Berezia

-Taldeentzat antolatu daitezke beharren arabera.

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

AZPEITIA

2.4 : Irteera Antolatuak - Bisita Gidatuak :

Lehenengo fase batean esperimentala eta sinplea izango da. Irteera antolatuak epe ertain edo luzera lantzen joango dira.

Hauek dira adibide batzuk :

Algorri – Zumaia – Geologia :

Nahiz Zumaia gure plan orokorretik kanpo egon, ezinbestekoa da Urola bailararen sorrera ulertzeko.

Bertan interpretazio zentroa badago eta denborarekin sare kulturala sortu daiteke.

Irikaitz – Zestoa :

Bertako aztarnategia erakutsi eta esplikatuz. Epe ertain edo luzera gehiago landu beharko litzateke, interpretazio zentroa egiten baldin bada. Ikerketa zientifikoak aurrera egiten duen neurrian eguneratu beharko da.

Ekain – Zestoa :

Koba nagusiaren sarrera edo inguruak erakutsi eta esplikatuz. Epe ertain edo luzera Ekainberri fundazioarekin sare kulturala sortu daiteke.

Ezkuzta – Azpeitia :

Aurretik, koba babestea komeni litzateke. Kobaren sarrera erakutsi eta esplikatuz, eta emaitza zientifikoaren arabera diskurtsoa eguneratu beharko da.

Munoaundi – Azkoitia :

Bertako aztarnategia erakutsi eta esplikatuz. Epe ertain edo luzera gehiago landu beharko litzateke.

Irteerak egun-pasa bezala planteatu daitezke, adibidez :

-Goizean : Algorri + Irikaitz + Ekain

-Bazkaldu.

-Arratsaldean : Ezkuzta + Munoaundi

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

AZPEITIA

2.5 : Komunikazioa landu :

Garrantzitsua da fase honetan gaur egungo komunikazio sistema guztiak lantzea. Hasieran badaudenak aprobetxatu behar dira.

Ikerketa arkeologikoaren egoera eguneratua mantendu behar da, bailarako aztarnategiei buruzko azken emaitza zientifikoek berri emanaz. Urolako aztarnategiak artikulatu, liburu eta hitzaldi zientifikoetan aipatzen direnean, edo haiei buruz datu berriak sortzean, aurrerapen horien berri emango da, daukaten garrantzia azalduz eta hizkera egokia erabiliz.

Adibidez :

- 5 Udaletxetako Web orrialdeak.
- Azpeitiko Kultur mahaia.
- Uztarría : Web orrialdea.
- Aranzadi : Web orrialdea.
- Telebistak.
- Irratiak.

Epe ertain edo luzera analisi sakon bat egin eta gehiago landu beharko litzateke.

2.6 : Beste erakundeekin harremanak :

2015 urtean hasiera ematea komeniko litzateke beste erakundeekin elkarlanerako harremanak. Adibidez:

- Urola erdiko 5 udaletxeekin harremanak lotu.
- Zumaia : Algorri interpretazio zentroa.
- Zestoa : Ekainberri fundazioa.
- Aranzadi Zientzia Elkarteak.
- Sanagustin kulturgunea.
- Tren Museoa.
- Loiola eta Jesuitak

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

AZPEITIA

Gizakiaren Eboluzioa UROLA Bailaran

3. Fasea : Urteak = 2016 – 2017 – 2018 ... 2025 ?

3.1 : Azpeitiko Ingurugiro Etxea :

2015 eko emaitzen analisia egin. Hobekuntzak edo gabeziak planteatu.

3.2 : Zestoa :

Azpeitiko Ingurugiro Etxeko esperientziaren ikuspuntutik analisia planteatu.

Adibidea: Zestoako Bainuetxea-Tren Geltokia, Irikaitz interpretazio zentroa.

3.3 : Azkoitia :

Azpeitiko Ingurugiro Etxeko esperientziaren ikuspuntutik analisia. Herriek dituzten edo eduki ditzaketen azpiegiturak, erabiltzea.

Adibidea: Munoaundi interpretazio zentroa.

*Erakunde eta gune desberdinak lotu ahal izateko hausnarketa eta analisiak egin

*Kultura-ekimen publiko nahiz pribatuen arteko sare bat osatzen saiatu

*Erakarritako publikoari kultura-sarean partehartzen duten gainontzeko eskeintzak ezagutzera eman

*Ondare/Kultura-sarea Erakargune bihurtu